



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA



Practicumaren araudia

Haur Hezkuntzako Gradua

Lehen Hezkuntzako Gradua

2013/2014 ikasturtea

Eskola Batzarrak onartua, 2012-05-30

Dokumentu hau Haur eta Lehen Hezkuntzako Graduetako Praktiketako Batzordeak egin du.

AURKIBIDE NAGUSIA

| | |
|-------------------------------------------------------------------------------|-------|
| 0. HITZAURREA | 4-5 |
| 1. ARAU OROKORRAK | 5-6 |
| 2. PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA | 6 |
| 3. IKASLEEK IKASTETXEA HAUTATZEA | 6-7 |
| 4. TUTORE ESLEIPENA | 7 |
| 5. BALIOZKOTZEAK | 7-8 |
| 6. KASU BEREZIAK | 9-10 |
| 6.1.Praktiketako egonaldiaren data aldatzea: ezohiko kasuak | 9 |
| 6.2.Praktiketako ikastetxea aldatzea | 9 |
| 6.3.Practicumeko gertakariak | 9 |
| 7. PRAKTIKETAKO IKASTETXEAN EGINDAKO EGONALDIAREN NOTAREN BALIOA | 10 |
| 8. TUTORETZA | 10 |
| 9. PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN FUNTZIOAK | 10-13 |
| 10. EBALUAZIOA | 13-14 |
| 11. ERANSKINAK | 15-22 |

0. HITZAURREA

Unibertsitateko ikasleen prestakuntza praktiken araudiaren oinarria azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta UPV/EHUren Ikasketen Gestiorako Arautegiak osatzen dute. Azken horrek, bere IX. kapituluko 72. artikuluan, graduiko ikasketen practicumeko oinarrizko alderdiak zehazten eta antolatzen ditu. Horrez gain, gai honen inguruan Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sinatutako lankidetzaz hitzarmena hartu da kontuan. Hori guztia Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetako ikasleek gauzatuko dituzten prestakuntza praktiken kudeaketari eta azterketari aplikatuko zaio.

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Praktiketarako Zuzendariordetzak antolatu eta koordinatuko ditu praktikak, ikastetxeekin batera. Practicumarekin zerikusia duen edozein gertaera konpontzeko, ikasleek Praktiketarako Zuzendariordetzara jo ahal izango dute.

Hauek izango dira praktiketan parte hartuko duten eragileak (Eusko Jaurlaritzarekin batera sinatutako hitzarmenean ezarritako nomenklatura erabili dugu): Practicumeko Zuzendariordetza, Practicumeko koordinatzailea, ikastetxeko irakasle tutorea, UPV/EHUko tutorea eta ikasleak.

Koordinatzaileei, ikastetxeko irakasle tutoreei, UPV/EHUko tutoreei eta ikasleei aholkularitza eskaintzeko asmoz, Praktiketarako Zuzendariordetzak practicum bakoitzerako informazio dokumentu espezifikoak utziko ditu Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean). Dokumentu horiek ikasleentzako, koordinatzaileentzako, ikastetxeko irakasle tutoreentzako eta UPV/EHUko tutoreentzako orientazio orokorrak barne hartuko dituzte: practicumaren helburuak, lan metodologia gomendagarriak, gauzatu beharreko jarduerak eta prestakuntza lanak, ebaluazio irizpideak, antolakuntzari dagozkion alderdiak, ordutegiak, parte hartzen duten ezagutza arloak/sailak eta praktikak gainditzeko beharrezko informazio guztia.

Praktikak amaitutakoan, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako Praktiketarako Zuzendariordetzak dagozkien ziurtagiriak emango dizkie ikastetxeetako irakasle tutoreei.

Egin beharreko praktika motek ez dute balio izango ikastetxeetako, erakundeetako edo enpresetako irakasleen zereginak betetzeko; ikasleek langileek dituzten lanengandik bereizitako eta/edo horien osagarri izango diren zereginak gauzatuko dituzte. Praktikak ezin izango dira ordaindu, eta ezin izango dira lan kontratupean egin, araudiak hala ezartzen duen kasuetan izan ezik.

Araututako prestakuntza praktikak direnez, eskola aseguruak automatikoki estaliko ditu, eta Euskal Herriko Unibertsitateak hala izateko beharrezko kudeaketa guztiak egingo ditu. Practicuma Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolari dagokion enborreko irakasgai bat denez, ikastegi horri dagokio antolatzea eta arautzea. Ildo horretatik, Graduiko eta Lehenengo eta Bigarren Zikloko Ikasketen Gestiorako Arautegiak honela dio bere 71. artikuluan: “Praktikak egin bitartean, ikasleek eskola-aseguruaren babes izango dute 28 urte bete arte. Adin horretatik aurrera, istripuetarako poliza kolektibo bat sinatu beharko du. Hala nahi izanez gero, aipatutako adina bete aurretik sinatu ahal izango du, gehigarri gisa”.

Practicumaren ardura osoa izen hori bera daraman Zuzendariordetzari dagokio. Talde horrek Akademia Antolakuntzako Batzordearen edo Practicumeko Batzordearen laguntzarekin jarduten du.

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdean aurki daiteke Practicumari buruzko informazio guztia (egitura, antolamendua, inprimakiak, etab.): http://www.irakasleen-ue-bilbao.ehu.es/p230-content/eu/contenidos/horario/magisbilbo_Practicum/eu_practicu/Practicum.html

XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA: ARAU OROKORRAK

- Ikasleek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak esleitutako ikastegian egingo dituzte praktikak.
- Egonaldiak antolatzeak dakartzan kudeaketa guztiak direla eta, beharrezkoa da prozesua hilabete batzuk lehenago hastea; beraz, ikasturte batean egin beharreko praktikak aurreko ikasturtean antolatzen hasi beharko dira.
- Ikasleek Irakasleen Unibertsitate Eskolak programatutako aldiaren egingo dituzte praktikak. Praktika aldiaren edozein aldaketa egiteko, Praktiketarako Zuzendariordetzaren baimena eduki beharko da.
- Praktikak egiten dituzten bitartean, ikasleek ikastetxe bakoitzak bertako profesionalentzat ezarritako lanaldi osoari dagokion ordutegia beteko dute, Practicumeko Zuzendariordetzak antolatutako aurretiko prestakuntza jardunaldietara eta Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako tutoreek antolatutako mintegietara joango dira eta banakako memoria bat egingo dute, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako tutoreak ezarritako ildoei jarraituz.
- Practicumeko Zuzendariordetzari dagokio aipatutako alderdiren batean aldaketaren bat egitea (ikastegia, aldia edo ordutegia), beraz, ikasleek zuzendariordetza horretatik bideratu beharko dituzte aldaketak egiteko eskaera guztiak, kasu berezietarako practicumaren araudian ezarritako baldintzei eta epeei jarraituz.
- Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako Gradua gaztelaniaz egiten duten ikasleek I., II. eta III. practicumak B eta D eredu ikastetxeetan egiteko aukera izango dute, baldin eta Praktiketarako Zuzendariordetzan B2 edo horren baliokidea den hizkuntza maila dutela frogatzen badute. Ildo horretatik, Eskolak ez du hizkuntza maila frogatzeko inolako probarik egingo; ikaslearen ardura izango da hizkuntza gaitasuna frogatzea. Aipatu behar da Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak hizkuntza diagnostiko bat egingo duela bere ikaslearen artean; proba hori ikasleei B eta D ereduaren praktikak egitea ahalbidetzeko erreferentzia gisa erabili ahal izango da.
- Practicum Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan egin beharko da, inola ere ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH).
- Bestalde, praktikak UPV/EHUtik kanpo egin nahi dituzten ikasleek (SICUE/SENECA programa...) egungo eskaintza errespetatu beharko dute. Horretarako informazio guztia Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Mugikortasun Programak atalean kontsulta daiteke.
- Araudia hautsiz gero, erantzukizun osoa ikaslearena izango da, eta ez da ikaslearen eta UPV/EHUko tutorearen edo ikaslearen eta ikastetxeko tutorearen arteko banakako hitzarmenik onartuko.

1.1. Kronograma

| | IKASTETXEETAKO EGONALDIA | ALDIA | KREDITUAK |
|-----------------|--------------------------|---------------------------------|-------------------------------------------|
| I. PRACTICUMA | 5 aste (astean 30 ordu) | Iraila-urria | Haur Hezk.: 8 kr. Lehen Hezk.: 9 kr. |
| II. PRACTICUMA | 7 aste (astean 30 ordu) | Azaroa-urtarrila | Haur Hezk.: 12 kr. Lehen Hezk.: 11 kr. |
| III. PRACTICUMA | 12 aste (astean 30 ordu) | Otsaila-martxoa-apirila-maiatza | Haur Hezk.: 18 kr. Lehen Hezk.: 18 kr. |

1.2. Aurretiko prestakuntza

Praktiketako egonaldia egin aurretik, ikasleak prestakuntza jaso beharko du, practicum bakoitzaren ezaugarriei dagozkien ordu kopuruaren arabera. Nahitaez bertaratu beharko du aurretiko prestakuntzara eta programatutako mintegietara. Prestakuntza saio horien datei eta gauzatuko diren moduari dagokienez, ikasleak informazio zehatza eskuratu ahal izango du ikasturte bakoitzaren hasieran Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean.

2. ARTIKULUA: PLAZEN ESKAINTZA ETA ESLEIPENA

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak eskainiko ditu urtero praktiketarako ikastegiak eta erakundeak. Hala, titulazio bakoitzak ikasleen espezializazio eskaerei erantzuteko adina plaza izango ditu. Itunpeko ikastetxeen eta ikastetxe pribatuen kasuan, Praktiketarako Zuzendariordetzak egin behar ditu practicum bakoitzerako libre dauden plazen kopurua ezagutzeko beharrezko kudeaketak.

Ikasle bakoitzari plaza bat esleitzeko Praktiken Batzordeak adostutako irizpideei jarraituko diegu:

- Ikasleek hiru practicumak ikastetxe desberdinetan egin behar dituzte, kudeaketa arazoengatik Praktiketarako Zuzendariordetzak hori ezinezkoa dela ezartzen duen kasuetan izan ezik.

- Horrez gain, Haur Hezkuntzako Graduak ikasleei hiru practicumetan aldi honi dagozkion bi etapak ezagutzea gomendatzen diegu (0-3/3-6).

Ikasleak, dagokion ikastetxearen berri izandakoan, esleitutako plazaren datuak egiaztatu beharko ditu, eta, akatsen bat egonez gero, Praktiketarako Zuzendariordetzari jakinarazi beharko dio, konpon dezan.

3. ARTIKULUA: IKASLEEK IKASTETXEA HAUTATZEA

- Practicumean izena emateko epea hasi aurretik, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak inprimaki bat bidaliko die ikastetxeei, bete eta Praktiketarako Zuzendariordetzari bidal diezaioten (5. eranskina). Inprimaki horretan ikastetxe horren practicum eskaintzari buruzko datuak jarri beharko ditu ikastetxeak. Ikastetxeak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolari bidali inprimaki hori bidali ezean, Praktiketarako Zuzendariordetzak ulertuko du ikastetxe horrek ez duela nahi parte hartu ikasturte horretan.
- Practicumaren kudeaketa Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalaren bidez egingo da. Atari horretan, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolak praktiketarako ikastetxeen zerrenda

argitaratuko du, bakoitzaren eskaintzarekin batera; horri esker, ikasleek beren lehen tasunak erabaki ahal izango dituzte. Zerrenda horretan agertuko dira ikastegiak eskaintzen dituen hizkuntza ereduak. Ikasleek, ikastetxe bakoitzeko eskaintza ikusita, dagokien eskaera bete beharko dute. Interesatzen zaien ikastetxeren bat zerrendan ez badago, AutoPracticum modalitatea aukeratu ahal izango dute; alegia, nahi duten ikastetxera joatea inprimakiarekin eta, ondoren, inprimakia Praktiketarako Zuzendariordetzan aurkeztea. Ikasleek, ikastetxe bakoitzeko eskaintza ikusita, dagokien eskaera bete beharko dute. Interesatzen zaien ikastetxeren bat zerrendan ez badago, Praktiketarako zuzendariordetzaren baimenarekin AutoPracticum modalitatea aukeratu ahal izango dute; alegia, nahi duten ikastetxera joatea inprimakiarekin eta, ondoren, inprimakia Praktiketarako Zuzendariordetzan aurkeztea (6. eranskina)

- Diplomaturako ikasleek ere AutoPracticum modalitatea erabili beharko dute beren eskaera egiteko.
- Arrazoia edozein dela ere (beste lurralde bat, hizkuntza profila, etab.), ikasleak practicum aplikazioko eskaintzan ez dagoen ikastetxeren batean egin nahi izanez gero, ikastetxe bat aurkezteko aukera izango du, 1. eranskineko datuak beteta eta, ondoren, inprimakia Praktiketarako Zuzendariordetzan aurkeztuta. Edonola ere, ikastetxearen azken esleipena Praktiketarako Zuzendariordetzari dagokio.
- Ikasle batek baino gehiagok praktikak ikastetxe berean egin nahi badituzte, eta ikastetxeak ezin badie eskaera guztiei erantzun, Praktiketarako Zuzendariordetzak hartuko du dagokion erabakia, irizpide akademikoei jarraituta (espedienteko nota eta gainditutako kredituak).
- Prozesu hau amaitutakoan, zerrenda bat argitaratuko da Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean; bertan, ikasleen datuak eta dagokien plaza agertuko dira.

4. ARTIKULUA: TUTORE ESLEIPENA

- Ikasturtea hasitakoan, Praktiketarako Zuzendariordetzak zenbat ikasleren tutoretza lanak egin beharko dituen jakinaraziko dio sail bakoitzari, Praktiken Batzordeak adostutako eta Eskola Batzarrak onartutako kreditu banaketaren arabera. Informazio hori jaso ondoren, sail bakoitzak tutoreen eta tutoretza jasoko duten ikasleen zerrenda bat entregatuko dio Praktiketarako Zuzendariordetzari.
- Sail bakoitzari dagokio tutoreak esleitzea.
- Sail guztien informazioa jaso ondoren, Praktiketarako Zuzendariordetzak ikasleen zerrenda, tutoreen esleipena eta horien arteko lehen bilkuraren data argitaratuko ditu Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean.
- Ikastetxeko zuzendariari edo koordinatzaileari dagokio ikastetxeko irakasle tutorea esleitzea. Ahal izanez gero, Praktiketarako Zuzendariordetzak tutoreen zerrenda eskatuko dio ikastetxeari practicum hasi aurretik.

5. ARTIKULUA: BALIOZKOTZEAK

Baliozkotze datak eta horretarako beharrezko inprimakiak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdean daude argitaratuta (Idazkaritza / Baliozkotzeak atalean). Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaerak EZ dira aztertuko.

Idazkaritzan onartutako baliozkotze eskaera guztiak aztertuko ditu Praktiketarako Zuzendariordetzak, Praktiken Batzordearen aholkularitzarekin. Ondoren, Akademia Batzordeari aurkeztuko dizkio, ebatz ditzan, eta ebazpenak Bilboko Irakasleen Unibertsitateko Eskolaren web orrialdean argitaratuko dira (Idazkaritza / Baliozkotzeak atalean), egutegian ezarritako epean.

| Baliozkotze kasuak | IRAKASGAI OSOA | EGONALDIA BAKARRIK |
|--------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| I. practicuma | <ul style="list-style-type: none"> Irakasle diplomatura izanez gero (ikusi 1. oharra). Diplomaturetako edozeinetako bi practicumetako irakasgaiak eginda edukiz gero (ikusi 1. oharra). Haur Hezkuntzako Goi Mailako Heziketa Zikloa edukiz gero. Haur Hezkuntzan/Lehen Hezkuntzan lan esperientzia izanez gero: <ul style="list-style-type: none"> -Azken hiru urteetan, gutxienez urte erdiko (lanaldi osoa) edo urtebeteko (lanaldi erdian) iraupenarekin. Diplomaturako I. practicuma gaindituta edukiz gero. | <ul style="list-style-type: none"> Practicumari dagokion aldian lanaldi osoan lan egiten ari bada, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan (ikusi 2. oharra). |
| II. practicuma | <ul style="list-style-type: none"> Matrikulatu den espezialitate berean diplomatuta badago. Haur Hezkuntzako Goi Mailako Heziketa Zikloa edukiz gero. Matrikulatu den diplomaturako espezialitateko practicumeko bi irakasgaiak eginda edukiz gero (ikusi 1. oharra). Diplomaturako I. practicuma gaindituta edukiz gero. | <ul style="list-style-type: none"> Praktiken aldian matrikulatuta dagoen espezialitate berean lan egiten badu lanaldi osoan (ikusi 2. oharra). |
| III. practicuma | <ul style="list-style-type: none"> Matrikulatu den espezialitate berean diplomatuta badago. Matrikulatu den diplomaturako espezialitateko practicumeko bi irakasgaiak eginda edukiz gero (ikusi 1. oharra). | <ul style="list-style-type: none"> Praktiken aldian matrikulatuta dagoen espezialitate berean lan egiten badu lanaldi osoan (ikusi 2. oharra). |

1. oharra: honela baliozkotuko da plan zaharretako practicuma (osorik) plan berrietakoarekin:

- Lehen Hezkuntzako Graduko practicuma Lehen Hezkuntza, Hezkuntza Fisikoa, Hezkuntza Berezia, Atzerritar Hizkuntzen Hezkuntza eta Musika Hezkuntza espezialitateak eginda dituzten ikasleentzat.
- Haur Hezkuntzako Graduko practicuma Haur Hezkuntza espezialitatea eginda duten ikasleentzat.

2. oharra: egonaldia bakarrik baliozkotzen den kasuetan, ikasleek dagokien practicumaren memoria entregatu beharko dute, eta irakasgaiak barne hartzen dituen bilkura, tutoretza, etab. guztietara joan beharko dute.

3. Oharra: Eskolaz kanpoko orduak ez dute balio baliozkotzeak eskatzeko.

6. ARTIKULUA: KASU BEREZIAK: LANALDI ERDIA, DATA ALDAKETA...

Kasu berezietan dauden pertsona guztiek dagokien eskaera egiteko izapideak egin beharko dituzte, practicum bakoitzerako ezarritako epeen barnean eta dagokien dokumentazio guztia entregatuta. Kasu berezien eskaera egiteko epea zehaztuta dago eta Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean agertzen da. Ezarritako epetik kanpo aurkeztutako eskaerak EZ dira aztertuko.

Epe barruan aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko ditu Praktiketarako Zuzendariordetzak, Praktiken Batzordearen aholkularitzarekin, eta Bilboko Irakasleen Unibertsitateko Eskolaren web orrialdean argitaratuko dira (Practicum atalean), egutegian ezarritako epean.

Eskaera egin duen pertsonaren erantzukizunpean egongo dira guztiz Praktiketarako Zuzendariordetzaren aldeko ebazpena jasotzen duten eta egutegi akademikoa aldatzen duten edo beste irakasgai batzuetan eragina izan dezaketen kasu berezien eskaera guztiak.

6.1. Praktiketako egonaldiaren datak aldatzea: ezohiko kasuak

Arau orokor gisa, practicuma enborreko irakasgaia da, eta, horregatik, aurrez ezarritako ordutegia du, nahitaez errespetatu beharrekoa.

Ordutegi aldaketa behar bezala justifikatutako ezohiko kasuetan bakarrik onartuko da (istripua, gaixotasuna, amatasuna, mugikortasun programa batean parte hartzea – ERASMUS, SICUE...-).

Datak aldatzeak ez dio ikasleari matrikulatuta dagoen beste ikastaro edo irakasgai batzuetara ez agertzeko baimenik ematen.

Bere egoera frogatzen duen beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko du, hala dagokion epean.

6.2. Praktiketako ikastetxea aldatzea

Ikasleek dagokien praktiketarako ikastetxean egingo dute beren egonaldia. Salbuespen gisa, eta dagokion dokumentazioarekin justifikatutako kasuetan, ikasleek ikastetxe aldaketa eskatu ahal izango dute.

6.3. Practicumeko gertakariak

Ikasleek egin beharreko practicumaren inguruan egin ditzaketen ohar guztiak (zalantzak, kezak, etab.) bideratzeko asmoz (baliozkotze eskaerak eta kasu berezien eskaerak izan ezik), Practicumeko Zuzendariordetzak ikasleari bere eskaera jasotzea eta izapidetzea ahalbidetzen dion inprimaki bat (4. eranskina) egin du. Zuzendariordetza horrek zuzenean adieraziko dio bere eskaerari dagokionez hartutako erabakia.

***6.1, 6.2 eta 6.3 puntuetarako jarduketa prozedura:** horretarako, instantzia, bere eskaeraren oinarri diren arrazoiak azaltzen dituen inprimaki normalizatua (2., 3. eta 4. eranskinak) eta dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko ditu. Ikasleak dokumentu hori erregistratu egin beharko du eta, ondoren, Praktiketarako Zuzendaritzordetzak, Praktiken Batzordearen aholkularitzarekin, eskaera desberdinak aztertuko ditu (entregatutako dokumentazioa ikusita) eta erabaki bat hartuko du. Erabaki hori Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum atalean argitaratuko du.

Inprimaki guztiak Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolaren web orrialdeko Practicum ataletik deskarga daitezke. Inprimakiak bete ondoren, ikasleak Euskal Herriko Unibertsitateko edozein Erregistro Orokorretan edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1996 Legearen 38.4 artikuluan (azaroaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) ezarritako edozein lekutan aurkeztu beharko ditu.

7. ARTIKULUA: PRAKTIKETAKO IKASTETXEAN EGINDAKO EGONALDIAREN NOTAREN BALIOA

Praktiketako egonaldia bakarrik gaindituz gero, nota ez da gordeko hurrengo ikasturteetarako; hau da, matrikulatu eta praktiketako egonaldia berriro egin beharko da.

Salbuespenak: dokumentuen bidez justifikatutako egoera larrietan, gainditutako praktiketako egonaldiaren nota luzatzeko eskaera egin daiteke (ikasturte bakarra luzatu ahal izango da), baina nahitaezkoa da berriro matrikulatzea.

Praktiketako ikastetxeko egonaldia bakarrik baliozkotu behar izanez gero, salbuespen horrek eskatu den urterako bakarrik balio duela ulertuko da; salbuespenik gabe memoria egin gabe uzten badu edo gainditzeko ez badu, hurrengo ikasturtean praktiketako egonaldia errepikatu edo, hala badagokio, berriro ere salbuespena eskatu beharko du.

8. ARTIKULUA: TUTORETZA

Praktiketako aldian ikasleek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle tutoreen eta praktikak egiten diren ikastetxeko tutore baten laguntza izango dute. Praktiketean dauden ikasleek ez dute inola ere ikastetxeetako langileen lanik egingo, gainerako irakasleek dituzten lanetatik bereizitako eta/edo horiekiko osagarriak diren beste zeregin batzuk izango dituzte. Hala izan ezean, ikasleak egoera hori jakinarazi beharko dio Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako irakasle tutoreari edo Praktiketarako Zuzendariordetzari.

Ikastegiko tutoreak eta Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako tutoreak koordinatu egin beharko dute, praktiketean dauden ikasleen prestakuntza beharrak adosteko.

Ikasleekin familiako lotura duten pertsonak egin ahal izango dituzte beren irakasle tutore lanak, baina ezin izango dituzte ebaluatu.

9. ARTIKULUA: PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEEN FUNTZIOAK

9.1. Practicumeko Zuzendariordetza

Hezkuntzako Ikuskaritza Teknikotik praktketan parte har dezaketen ikastetxeei buruzko informazioa eskuratzea.

Graduko koordinatzaileekin jarduketak koordinatzea.

Ikasleak praktketan parte hartuko duten ikastegietan banatzea.

Parte hartuko duten ikastegietako zuzendaritzekin harremanetan jartzea, helburuei, jardueri eta ebaluazio araudiei buruzko informazioa emateko.

Ikastegiekin, instituzioekin eta erakundeekin praktketarako hitzarmenak ezartzen saiatzea.

9.1.1. Practicumeko Zuzendariordetza: atxikitako AZPko langileak

Zereginak banatzeko eta practicuma egituratzeko kronograman zehaztutako administrazio kudeaketa batzuk gauzatu dituzte.

9.2. Praktiken Batzordea

Praktiken Batzordea praktketarako zuzendariordeak eta titulazioan irakaskuntza eskaintzen duten sail bakoitzeko irakasleek osatzen dute. Gomendagarria litzateke Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza titulazioetako koordinatzaileek Batzordean hartzen diren erabakien berri izatea.

Funtzioak:

Sailetako zuzendariari eta koordinatzaileari Batzordean hartutako erabakien berri ematea.

Praktketarako prestatzeko etapa antolatzea, parte hartzen duten irakasleen lankidetzarekin (jarduerak eta ordutegia).

Irakasle tutore bakoitzari orientatu beharko dituen ikasleak esleitzea.

Irakasle tutoreen jarduerak koordinatzea.

Praktikak erregulatu dituen araudia, Ikastegiko Batzarrak onartu beharrekoa, egitea eta aplikatzea.

Urtero ikastegian ematen diren titulazioetako praktiken beharrei erantzuteko plangintza egitea, eta praktika horiek egiteko hitzarmenak sustatzea erakunde eta instituzio publiko nahiz pribatuekin.

Indarreko praktika planetan parte hartzen duten eragile desberdinen artean sor daitezkeen arazoak konpontzeko orientazioa ematea eta bitartekotza lanak egitea.

Baliozkotze eskaerak eta kasu berezien eskaerak ebaluatzea.

9.3. Ikastegiko koordinatzailea

Practicumeko koordinatzailea arduratuko da bere ikastegian praktketan dauden ikasleen prestakuntza jarduketak koordinatzeaz eta dagozkion Unibertsitatearekiko harremanez.

Ikastegiko zuzendariak, bertako ordezkari nagusi gisa, koordinatzailea eta irakasle tutoreak izendatuko ditu; horiek practicuma ikastegian egiten duten ikasleen zuzeneko erreferentzia bihurtuko dira. Ahal izanez gero, izendapena practicuma egiten ari diren ikasleen koordinazio edo tutoretza lanak egiteko eskaera egiten duten irakasleen artean egingo du.

Funtzioak:

Practicumeko ikasleek ikastegian egiten duten egonaldia errazagoa egitea eta behar izan dezaketen informazio guztia ematea.

Ikastegiaren ordezkari lanak egitea Unibertsitatearekiko harremanetan, eta practicumeko unibertsitate arduradunekin lankidetzan aritzean, bi erakundeetan egin beharreko lana koordinatzeko.

Irakasle tutore bakoitzak practicumeko ikasleen prestakuntza prozesuan duen zeregina zehaztea.

Practicumeko ikasleen espazioak eta ordutegiak antolatzea.

Practicumeko ikasleen irakasle tutoreekin egin beharreko bilkuren egutegia prestatzea.

Practicumeko ikasleei harrera egitea eta laguntzea ematea praktiken hasieran.

Practicumeko ikasleei Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua aurkeztea eta bertako kudeaketaren eta antolamenduaren berri ematea, baita behar dituzten dokumentuak ematea ere. Ikastetxea barne hartzen duen gizarte eta hezkuntza testuingurua azaltzea.

Practicumeko ikasleek ikastetxeko antolakuntza instituzionalean parte har dezaten sustatzea: klaustroa, sailak, tutoretzak, etab.

Irakasle tutoreek Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolan egiten diren ikerketa proiektuetan, praktika plana hobetzea ekarriko dutenetan, parte har dezaten sustatzea.

9.4. Ikastetxeko tutorea

Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako ikasleak praktikak egingo dituen ikastetxeko irakasle bat izango da.

Funtzioak:

Ikastetxeko practicum koordinatzailearekin eta practicumeko unibertsitate arduradunekin lankidetzan aritzea, bi erakundeen artean egin beharreko lanak koordinatzeko.

Praktiketari dauden ikasleak hartzea ezartzen diren ikasturteko aldietarako.

Praktiketako ikasleei dagokien eskola taldearen edo unitatearen ezaugarriei buruzko orientazioa ematea, baita ikastetxeko curriculum proiektuari eta hezkuntza taldearen edo unitatearen testuinguruari buruzkoa ere.

Ikasle bakoitzari laguntza ematea practicumak irauten duen bitartean, eta practicumean egin beharreko lanetarako autonomia eta erantzukizuna izateko aukera eskaintzea.

Bere tutoretzapean duen practicumeko ikasleak egin beharreko prestakuntza ekintza orokorrak gainbegiratzea.

Praktiketako ikasleari gainerako irakasleekin batera koordinazio zereginetan parte hartzen laguntzea eta horretara bultzatzea, eta ahal den neurrian familiekiko harremanak sustatzea.

Ikasleentzako prestakuntza ekintza espezifikoak proposatzea gauzatu behar duten practicumeko plan orokorraren barnean.

Practicumaren prestakuntza prozesua ebaluatzea, ikasleari bere jarduketaren indarguneen eta ahulguneen berri emanez, azken horiek hobetzeko helburuarekin.

Practicumeko ikasleen esku jartzea ikastetxeak dagozkion prestakuntza ekintzak prestatzeko dituen baliabideak.

Practicumeko ikasleen gaitasunak ebaluatzeko azken balorazioa egitea.

Irakasleen praktiketako tutoreari eta ikastegiko koordinatzaileari practicumean sortutako arazoak berri ematea.

Practicuma hobetzeko egokiak iruditzen zaizkion iradokizunak eta ekarpenak egitea.

9.5. Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolako praktiketako tutorea

Practicumaren irakaskuntzan parte hartzen duen edozein sailetakoko irakasle batek bete behar du zeregin hau. Bere sailak izendatuko du practicumeko irakasle.

Funtzioak:

Talde baten ardura hartzea eta horri irakaskuntza ematea, irakasle ikasketen enborreko irakasgai gisa.

Practicumeko Zuzendariordetzak eta titulazioko koordinatzaileak antolatutako bilkuretara joatea.

